



TOMAS GARBIZU  
LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA  
Tel: 943 52 99 99 - tgarbizume@lezo.net

## **TOMAS GARBIZU LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA** **2023-24 IKASTURTEA: MUSIKA-TRESNA AUKERATZEA**

Matrikula 2024eko maiatzaren 02tik 16ra egin ahal izango da bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 16:30etatik 20:00etara) edo email bidez.

Matrikula-inprimakia posta elektronikoz jasoko duzue eta lehentasun ordenaren arabera, gutxienez, bi tresna adierazita, entregatu egin behar duzue.

17tik 23era, matrikula epean sor daitezkeen gorabeherak konponduko dira.

Hauek dira musika eskolak eskaintzen dituen musika-tresnak: **perkusioa, saxofoia, zeharkako txirula, tronpeta, pianoa, biolina, biola, , gitarra, txistua, trikitixa, pandero (Tresna kolektiboa), akordeoia, eta klarineta.**

Plazak korrelatiboki esleituko dira eta, horretarako, ikasleak adierazi duen espezialitate-ordena aplikatuko zaio kreditu-kopuruaren arabera sortutako zerrendari, hutsik dauden plaza guztiak bete arte. Musika-tresna guztietan plaza mugatuak daudenez (Bi leku), komenigarria da **hainbat musika-tresnarekiko lehentasuna adieraztea. Musika-tresna horietako batean plaza lortuz gero, EZIN izango zaio uko egin; uko eginez gero, ikaslea azkena izatera pasako da, <musika-tresna aukeratzea> zerrendan.**

Kreditu berdinketa badago, lehentasunak, zozketa bidez argituko dira.

Matrikula-epea itxi eta plazak barematzeko eta esleitzeko prozesua amaitu ondoren, ikasle bakoitzari esleitutako musika-tresnaren berri ematen duen zerrenda jarriko da Musika Eskolako iragarki-taulan (**Maiatzaren 24an**)

Musika-tresnak esleitu ondoren bajaren bat egonez gero, plaza hutsak betetzeko, kontuan hartuko dira ikasleak, <kredituak> zerrendan duen orden korrelatiboa eta matrikula-inprimakian adierazi dituen lehentasunak.

Plazak esleitu ondoren ikasleari jakinarazten bazaio ez duela eskatutako musika-tresna bakar batean ere plazarik lortu, Musika Eskolak aukera hauek emango dizkio:

- 1.\* Plazak dauden beste musika-tresna batekin has daiteke (kreditu 1) . Horrek esan nahi du, itxaron zerrendan agertzea, kredituak zenbatzea eta hurrengo ikasturtean aukera izatea lehenengo aukeraketan eskatutako lehentasunezko musika-tresnetako bat aukeratzeko.
2. Musika-tresna alde batera utz dezake eta gainerako irakasgai osagarriak egin ditzake hurrengo ikasturtean. Hori eginez gero, itxaron zerrendan egongo litzateke, hurrengo ikasturtean lehen aldiz musika-tresna aukeratzeko duten ikasleen baldintza berberetan. Horrelakoetan, kreditu-kopurua musika-tresna aukeratu **EZ** zueneko berbera izango da. (Kasu horretan, gehienez ere 4 kreditu emango dira).
3. Musika-tresnan baja eman eta beste musika-tresna hartu nahi duen ikasleak. Bi ikasturtez, ikasle ofizial bezala egon beharko du, musika-tresnaren itzarote zerrendan. Denbora tarte honen ondoren, musika-tresnaren aukeraketa prozesuan, musika-tresna hori aukeratu nahi duten lehenengo aldiz parte hartzen duten, ikasleen baldintza berdinetan (4 kreditu) parte hartuko du. Ez dira kontatuko, baja eman ondoren lortutako kredituak.

### **Musika tresnen egutegiak\* hauek izango dira: (Egunak orientagarriak dira.)**

Biolina\*-Tronpeta ,Gitarra (**Astelehena**) , Perkusioa- (**Asteazkena**) ,Trikitixa\* ,Pianoa\* ,Flauta (**Osteguna**) , Akordeoia , Klarineta, Saxofoia. Txistu (**Ostirala**)

*Musika eskolako tresnak, urte bat erabili ahalko da. Badira tresna batzuk, etxera ezin direnak eraman, kasu horretan, Musika Eskolan entseatu behar da (Pianoa, Perkusioa, Akordeoia eta Trikitixa).*

*Kurtso bat pasa ondoren, bakoitzak bere musika-tresna izan beharko du*

### **ERANSKINAK:**

#### **Tresnak sustatzea.**

- ❖ \*2023 -24 ikasturtean, Musika Eskolak 1.3 musikao eta mugimenduko eta musikako ikasleei eskaintzen dizkien instrumentuek, lehentasunezko instrumenturik ezin izan badute eskuratu, % 25eko hobaria izango dute. Eskaintza hori baliozkoa izango da instrumentuaren lehen ikasturtean. (1go.puntua)
- ❖ Panderoa, Konboak,... (Tresna kolektiboa). Instrumentu-Koru Taldea irakasgaiarekin baliozkotu ahal izango da.
- ❖ Edozein argibide behar izanez gero, jar zaitezte gurekin harremanetan.

“Tomas Garbizu” Lezoko Udalaren Musika Eskola.Tlf: (943) 529999 [tgarbizume@lezo.net](mailto:tgarbizume@lezo.net)

**Lezo, 2024-02-20**